

# noaua



## ELKARTASUN UHOLDEA, VALENTZIAKO HONDAMENDIAN KALTETUTAKOEN ALDE

Janari, arropa eta garbikarien bilketa egin dute egunotan Santuenean / 08

ARGAZKIA: NOAUA



IKASKOLI.EUS

**Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia iritsi da / 12**




NOAUA

**Usurbilgo Artisau Azokak jende asko erakarri zuen / 14**



JONMI\_7

**Jon Mikel Elexpe gustura ari da Zumaiaiko Pulpo EK eskubaloit taldean / 16**



NOAUA

**Larunbat honetako Txalaparta Festarako ekitaldi ugari iragarri dituzte / 22**

**ANDATZA TABERNA**

*Irekiera berria!*

**EGUNEKO MENUA**  
**ASTEBURUKO MENUA**  
**KARTA**  
**RAZIOAK**  
**OGITARTEKOAK**

**Ostegunetan**  
*Pintxo pote!*

**8:00-20:30** Astelehenerik - Asteazkenera **BAZKARIAK**  
**8:00-23:00** Ostegunetik - Igandera **BAZKARI eta AFARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

**JARRAI IEZAGUZU SARE SOZIALETAN**

**USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN**

**ARGAZKIAK**

**ALBISTEAK**

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

@noauaastekaria @noaua Noaua Aldizkaria @noauatb

# HITZALDIA - SAGASTIEN BIOANIZTASUNA: SAGARRONDOEK ZEIN BIZILAGUN DITUZTE?

**AZAROAK 14, OSTEGUNA**  
**18:00tan Potxoenean**

**Irakaslea:** Iñaki Sanz Azkue

**Antolatzaileak:** Alkatasuna Usurbilgo baserritarren kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea

**Izen-ematea:** Doan Alkatasunako telefonoan 943 361 114 eta alkatasuna.eus web orrian.

# Lurrazpiko mintzoa azaleratzen

Fronte goiztiarra, defentsarako epealdi laburrean baliatutakoa, baina arrasto sakona utzi zuena. 1936ko altxamendu faxistaren ondotik kolpisten aurrean babesteko Andatza gainean eraikitako babes eremua berreskuratzeko indusketa lanak egin zituzten aurreko bi urteotan Usurbil 1936 elkarteak hainbat boluntariorekin. Hango aurkuntzak hitzaldi bidez aurkeztu zituzten berriki Sutegin. Material asko aurkitu zuten, 972 objektu gutxienez; 680 bala zorro, 32 kargatzaile, 12 bala, 18 uniforme zati, paper

zatiak, goilara, bastoi baten kirtena... "Gerra industrial eta xahutzaile baten irudia" aurkitu zutela berri eman zuen, Josu Santamarina arkeologoak. Andatzako oroi-menaren ibilbidea osatzeko gonbita egin zuen. Berreskuraturiko eremu horrekin "memoria leku bezala bere funtzioa betetzea espero dugu. Guztion ondare memoria, kulturala, denongana heltzea".

QR kode eta panelen bidez osa dezakezue Andatzako ibilbide hau, baita berriki prestatu duten herri erdiguneko ere, 650 Usurbil Bizi



Usurbil 1936 elkarteak Sutegin antolaturiko hitzaldia.

egitasmoaren baitan. Hurrengo bisita gidatua hain zuzen, azaroaren 10ean izango da,

11:30-13:00 artean. Izen-ematea eta informazio gehiago, 650usurbilbizi.eus atarian.

## 1945eko kinto bazkaria Artzabalaren egingo da

Azaroaren 17an igandearrekin batuko dira Artzabalaren, eguerdiko 14.00etan. Izena aurretik eman beharko da eta horretarako azken eguna azaroaren 14a izango da.

Izen-ematea ondorengo telefono zenbakietara deituz egin behar da: 645 711 033 / 688976760.

## 1947an jaiotakoak azaroaren 30an batuko dira

1947. urtean jaiotakoek azaroaren 30ean ospatuko dute kinto bazkaria.

Artzabal jatetxean egingo dute ospakizuna eta interesa duten guztiek bi telefono zenbaki hauetako batera deitu beharko dute, izena emateko:

- 678 368 980 (Pili).
- 637 98 84 14 (Ana).

## 1972an jaiotakoak azaroaren 30ean elkartuko dira

1972ko kintoen bazkaria azaroaren 30an ospatuko da, Maykar jatetxean. 14:30ean elkartuko dira jatetxean bertan. Izena emateko, 50 euro sartu beharko dira ES44 3008 0259 11 5319017926 kontu zenbakian, norberaren izen-abizenak jarrita. Azken eguna azaroaren 22a izango da.

## 1973ko kinto bazkaria, Atxega jauregian

1973ko kinto bazkaria azaroaren 16an ospatuko da, Atxega jauregian.

Izena emateko, bi telefono zenbaki hauetako batera deitu behar duzu:

- 606 647 115 (Mikel)
- 600 648 889 (Marimar).

Izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatorra:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Aiaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Inprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

# Bilobak, birbilobak eta herenilobak Behobiatik Donostiara

**A**iba! Zeinen istorio polita!", "Ze ideia ona!", "Ederra!", "Hunkigarria!", "A, baina irabazi egin al zuen?", "Orain dela 100 urte? Eta orain ondorengoak aterako zarete? Mundiala da!"

Istorioa, ekimena edo egite-ra goazena kontatu diegun guztiek antzeko erantzunak eman dizkigute, eta erantzunek horri buruz idaztera animatu naute. Bai, istorioa polita delako, eta guri ilusio berezia eta emozioa eragiten digulako.

Dena duela bi urte hasi zen, 2022ko lehengusu bazkarian. "Ba al dakizue 2024an 100 urte beteko direla attonak Behobia-Donostia lasterketa irabazi zuela?" gogorarazi zuen batek. "Ederra litzateke 100. urteurrena ospatzeko gu 2024ko Behobia-Donostian ateratzea, taldean, denok elkarrekin", bota zuen beste batek. "Hori da, attonak 100 urte lehenago egindako lasterketa egitea", "Ospatzeko eta gogoratzeko modu berezia izango litzateke", "Ni bai, ni animatzen naiz", "Neu ere bai", "Ni korrika ez, baina animatzera joango naiz".

Eta iazko bazkarian: "Bueno zer, aterako al gara?", "Hori da, hasiko al gara entrenatzen?"

Eta bai, iritsi da unea: 2024ko Behobia-Donostia lasterketan Juan Manuel Azpiroz Aiako txikia korrikalariaren 13 ondorengo aterako gara korrika: bilobak, birbilobak eta herenilobak. Laugarren belaun-



1924ko VI. Behobia-Donostia lasterketa irabazi zuen Juan Manuel Azpiroz Aiako txikia.

dirainoko soka osatu dugu eta attonaren omenez egindako kamisetak soinean ditugula aterako gara korrika. Familiako gainerakoak animatzen izango ditugu eta nola ez, ondoren bazkaltzeko elkartuko gara, ia 80.

1924an irabazi zuen attonak Behobia-Donostia lasterketa, 22 urte zituela. 1:14:22ko denboran egin zituen 20 km-ak eta erraztasunez iritsi zen Kursaal Kasinoaren pareko helmugara. Urte hartan 24 lagunek eman omen zuten izena eta horietatik 16 azaldu omen ziren lasterketara.

## "1924 ETA 2024 URTEAK LASTERKETA BEREAN KORRIKA EGINEZ LOTUKO DITUGU"

Aurretik eta ondoren lasterketa gehiagotan parte hartu zuela jakin dugu. Eta garai hartan ohikoak ziren korrika-apustuetan ere asko ibili zen, Tolosako eta Azpeitiko zezen-plazetan, adibidez. 1943an 5.000 pezeta jokatu zituen Goizueta-Leitza joan-etorria hiru orduz azpitik baietz egin eta 2:47:58an egin zuen buelta, sekulako marka utziz. 1924tik 1958era bitartean moda modako korrikalaria izan zen attona, Aiako txikia.

Alpargatak jantzita ikusten den argazki kurioso bat badaukagu, hanka meheak eta bularralde zabala ederki ikusten zaizkiona. Korrikarako gorputz oso aproposa, guri txikitatik esan zaigun bezala.

100 urte beranduago, 1924 eta 2024 urteak lasterketa berean korrika eginez lotuko ditugu, attona, birrattona eta herenattona gogoratuz eta omenduz. Hunkigarria izango da.

## Garbigune mugikorra, Txokoalden

Azaroaren 7tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinak berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan botatu, poltsarik gabe.

**Datorren astean, Santuenean** Azaroaren 14an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

## Azaroaren 24an ospatuko da Erle Eguna

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Azoka:
  - Postuetako salmenta.
  - Erakusketak Sutegin: Erleak, ezti ontziratzekeo prozesua...
  - Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak.
- 11:00 Ezti dastaketa frontoian/Eztia eta txokolaterekin egindako goxoak/Jogurta eztiarekin banatuko da.
- 13:30 Euskal Herriko XXIII. Ezti Lehiaketako sari-banaketak:
  - Ezti Lehiaketako irabazleak.
  - Gozogintzako irabazleak.
  - Marrazki Lehiaketako irabazleak.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.
- Laguntzailea: Udala.



Egun ezitsuen gerturatsen ari da.

**Antxeta**  
 TABERNA  
 egunero irekitzen dugu!  
 eguneko menua · asteburuko menua  
 oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...  
 paellak enkarguz!  
 943 54 43 12 Zubiarrenea 6, Usurbil.

**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 · KIROL MASAJEA  
 · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**Otar-Goxo**  
 Elikagaiak  
 Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Urriaren 31n egindako udalbatzaren osoko bilkura.

# Beste lau urtez luzatu da hitzarmena Garbitaniarekin

Garbitaniarekin sinatu beharreko hitzarmena, Azaroaren 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunari lotutako adierazpena edota gai ekonomikoak hartu zituen ahotan udalbatzak, iragan urriaren 31ko osoko bilkuran.

Urriaren 31n bildu zen hilero moduan, udalbatza osoko bilkuran. Gai ekonomikoak nagusitu ziren saio horretan. Batetik, 12.500 euroko kreditu aldaketa bat onartu dutela berri eman zuen udal gobernu taldeak. Horietatik 10.000 euro igogailuak instalatzeko dirulaguntza deialdira bideratuko dituzte. Izan ere, 10.000 euro urte hasieran plazaraturiko deialdi horretan inbertitzea aurreikusia zuten. Baina izan den eskaera kopurua ikusita, 10.000 euro gehiago bideratzea erabaki dute. Aurtengo deialdiaren ebazpena urriaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak kaleratu zuen. Beste 2.500 euro Udalaren auto partekatuen egitasmorako aurreikusi dituzte. Diru kopuru hau, kreditu globaletik hartu dute. Lehen 34.548,32 euro zituen,

12.500 euroko kreditu aldaketa honen ostean, 22.048,32 euro.

## Hitzarmena Garbitaniarekin

Bestetik, aurtengo hirugarren hiruhileko aurrekontuaren exekuzioaren eta ordainketen epearen berri eman zuen udal kontuhartzaileak. Ordainketen epeari dagokionean, batzaz beste 4,92 egunekoa da, izatez 30 eguneko epea duenean Udalak.

**12.500 EUROKO KREDITU ALDAKETA BAT ONARTU DUTELA BERRI EMAN ZUEN UDAL GOBERNU TALDEAK**

Garbitania Zero Zabor SL sozietatea ere ahotan hartu zuten udal ordezkariak urriaren 31ko osoko bilkuran. Sozietatearen jabe dira hiru udal; Astigarragako, Hernanikoa eta Usurbilgoa. Garbitaniarekin hitzarmena berritzea erabaki zuen aho batez udalbatzak. Azken lau urteotan, indarrean egon dena ordezkaturiko du. Izan ere, 2010ean eratu zen sozietate hau, Oiarzungo eta Hernaniko udal-

**AZAROAREN 25ARI BEGIRAKO ADIERAZPENA ONARTU ZUEN UDALBATZAK AHO BATEZ**

kin batera, "Usurbilgo Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa". Oiarzungo ez da egun Garbitaniako bazkide, bai, ordea, %24,15eko partaidetza duen Astigarragako. %49,9koa du Hernanikoa eta %25,95ekoa Usurbilgoak. 2019az geroztik, hondakinak kudeatzeaz gain, kale eta bide publikoen garbiketan ere badihardu Garbitaniak.

Lau urterako onarturiko hitzarmen berriaren helburua, lankidetzaren esparru hau are gehiago zehaztea izango da. "Garbitania behartuta egongo da bere udal bazkideek eskatzen dizkioten prestazioak egitera". Lau urterako hitzarmena izango da, beste lau urtez luzatu ahalko dena. Lankidetzaren hitzarmen hau betetzen doala bermatzeko jarraipen batzorde bat eratuko dute.

## Azaroaren 25a

Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 25a. Egun horri begirako adierazpena onartu zuen udalbatzak aho batez, iragan asteko osoko bilkuran. Besteak beste, konpromiso hauek bere egiten ditu Usurbilgo Udalak, testu horren bidez; "euste-horma kolektiboa aktibatzea"; gazteei, bereziki mutilei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea; "eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzak; Hezkuntza Sailarekin lankidetzaren sustatzea jarrera ukatzaile eta matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko; edota udalerriek sarean lan egitea bultzatzea.

Gai honi lotutako erakunde arteko protokoloa lantzen ari dira Sortzen kooperatibarekin. Lanketa horretan parte hartzen ari da udal ordezkari tekniko eta politikoa, mugimendu feminista... Marko legala, indarkeriaren detekzioa edota erreparazioa izango dituzte hizpide saio hauetan.



Txalaparta Festaren sustatzaileak, azaroaren 9ko jaialdia abiatuko den gunean bertan. Argazkia: Usurbilgo Udala.

# "Txalaparta Festa berritzailea egin nahi genuen"

**JURGI FUENTES (JEXUX ARTZE K.E.) ETA MALEN AIERBE (KARTELAREN EGILEA)**

Udaberritik udazkenera geroratu duten Txalaparta Festaren hirugarren edizioa bueltan dator larunbatean, azaroaren 9an. Berritzailea izango da; formatu berriak tartekatuko dituen, ibiltaria eta herri erdigunetik Usurbilgo herri eta auzo gehiagotara hedatuko dutena.

**Ohi baino geroago dator aurtengo Txalaparta Festa. Zergatik?**

**Jurgi Fuentes:** Maiatzean Jexux Artzeren heriotzaren urteurrena izaten delako hasi ginen antolatzen, baina ikusi genuen Hernaniko Txalaparta Festa egiten dela sasoi horretan; aurreko astean Iruñeakoa ere bai. Euskal Herri mailako ikuspegitik, hilabete berean hiru txalaparta festa egiteak ez zeukala zentzurik ikusten genuen. Horregatik, planteamendua aldatu genuen; batetik, aipatu maiatzeko data guretzako garrantzitsua izaten segitzen duenez, Olatz eta Iñaki Salvadorren emanaldia

antolatu genuen. Probatzearen, Txalaparta Festa udazkenera aldatzea erabaki genuen.

**Kulturgunetik ekitaldiak urtean zehar sakabanatzeko eginiko apustuarekin ere zerikusia baduzuen erabakiak?**

**"TXALAPARTA FESTA UDAZKENERA ALDATZEA ERABAKI GENUEN"**

JURGI FUENTES

Saiakera hor dago. Kontzienteki egindako aldaketa bat da hau.

**Horri lotuta, festa Usurbilgo herri eta auzoetara hedatzea hobetsi duzue aurten.**

Kulturgunea aipatu duzu eta Kulturguneak lau oinarri iza-

**"TXOKOALDETIK AGINAGARAKO BIDEA ALBOKARIEKIN EGINGO DA"**

JURGI FUENTES

ten ditu; sormena, komunikazioa, plazak eta transmisioa. Plazen arloan dago, eremu berriak sortzea. Eguna berritzailea egin nahi genuen eta alde horretatik, herri erdigunetik ateratzeko eta mugitzeko saiakera egingo dugu bai.

**Lotuko dituzue herri erdigunea, Aginaga eta Txokoalde.**

Bai, hasiera batean Zumeta Arte Estudiora joatea zen asmoa, baina ezin izan da. Herri erdigunean hasi eta amaituko dugu eguna.

**Zirkuitu modukoa izango da.**

Bakoitzak mugitu beharko du ahal duen moduan. Txokoaldetik Aginagara ibilbidea albokariekin kalejiran egiteko asmoa dago, errioiari eta erriberari ere bere garrantzia emanez. 650 Usurbil Bizi herri egitasmoarekin batera antolatu da. Usurbil desberdinak Txalapataren Festaren barnean hartzeko aukera ikusi genuen. Horren baitan izango da erriberako ibilbidea eta bazkaria sagardotegi batean.

**Artzetarrei keinu eginez hasiko duzue eguna.**

Hau Kulturguneko transmisioaren arloan kokatua dago. Artzetarrek musika egiten zuten ezkilak joaz. Gure buruan beti egon da ohitura hori berreskuratzeko ideia. Iaz, Udalak elizako ondarea ezagutzeko bisitak egiteko hitzarmena egin behar zuela jakitean, aukera baliatu nahi genuen ezkilak jotzeko ekitaldi hau egiteko. Dema plazan egingo dugu bilgunea. Ondo ateratzen bada, aurrera begira ere urtean zehar aukera izan dezakegu beste egun berezi batzuetan jotzeko.

**Transmisioari lotutako Txalaparta Eskola martxan duzue. Zer nolako mugimendua dabil bertan? Hamabost bat ikasle daude ikasturte honetan. Jende berria animatzen ari da eta itxura ona du. Orain lortu behar duguna da gelan ikasten duguna**

kalera ateratzea, plazan aukerak sortzea ikasleei eta giroa sortzea txalapartaren inguruan. Horri lotuta, aurreko urteetan egin dugu ikastolakoekin emanditxo bat eta aurten ere egiteko asmoa dago, txalaparta zer den, nola jotzen den eta instrumentua bera erakusteko ikasleei.

### **Txalaparta eskolatik, horma artistik plazara ateratzea da helburua.**

Hasieratik izan da helburua. Gainera, txalaparta moduko instrumentu batek ez du zentzurik plazarik gabe. Gela batean ikasten dena bertan geratzen da. Biren artean jotzen da normalean, etxean ere ez dago jotzerik, hori ere zailtasun bat izaten da. Horregatik, egokiena kalean jotzea izaten da.

### **Txalapartaren inguruko eragileak batu nahi dituzue festa egun honetan; Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita tartean.**

Oreka TX mundu mailan erreferentea dena, luxu bat da guretzat. Hasieratik egon dira Txalaparta Festaren antolakuntzan murgilduak. Pasa dira bi edizio eta hirugarrenean pentsatu genuen beraiek egotea egokia zela. Txokoaldeko tokia erakutsiko dute. Adarrak egiteko tailerra ere badago eta haiek probatzeko aukera ere egongo da.

### **Berritzailea izatea nahi duzue egun hau. Formatu berriei lekua egongo diezue.**

Sagardotegiko bazkarian gure ideia da txalaparta jarrita egotea. Edonork jotzeko aukera izango du. Bazkalostean, txalapartarekin lotutako zerbaitekin egin nahi genuen. Madrilo txalapartari batzuk ekartzea bururatu zitzaigun.

### **Nolatan egin duzue harremana haiekin?**

Antza, ezagunak dira txalapartaren munduan. Txalapartaz gain, beste instrumentu batzuk jotzen dituzte musikarekin batera. Badirudi sasoi



Malen Aierbe Zubeldia, berak sortutako kartela eskuartean duela, Jexux Artze K.E.-ko kide Jurgi Fuentesekin batera.

batean Euskal Herritik joandako batekin ikasi zutela zerbaitekin eta beraiek garatu dute haien ibilbidea.

### **Eguna amaitzeko, Fanfarrikant.**

Sortzaileekin eta musikariekin batzeko modu politena Fanfarrikant zela pentsatu genuen. Kalejira izango denez, saiaturako gara haiekin batera txalaparta jotzen kanta batzuetan.

### **Malen, zuk sortu duzu festa honen kartela. Xehetasunok irudi bilakatzeko lana nondik hasi zenuen?**

**Malen Aierbe Zubeldia:** Aurrena, antolatzaileei eginiko galdetegi baten bidez jaso nahi izan nuen aurtengo Txalaparta Festaren oinarriaren berri. Berritzailea izatea nahi zutela eta irudiarekin ere hori transmititu nahi zutela adierazi zidaten. Aurtengo festa ibiltaria izango denez, garrantzi

tsua iruditu zitzaidan irudia berritzailea izatea baita koloreen aldetik ere. Ibilbidea irudikatu nahi nuen, jendeak kartela ikusten duen lehen begiradan konturatu dadin, aurtengoak hiru kokapen desberdin izango dituela; Usurbilgo erdigunea, Aginaga eta Txokoalde. Hori oinarri hartuta, ideia desberdinak islatzen hasi nintzen eta hau da atera dena. Nire helburua zen dinamismo eta transmisio hori erakustea eta horregatik uhin horien sinbologia. Olatuen uhin horien bidez helarazi nahi izan da musikaren beraren doinua eta ibilbidearen dinamismoa.

### **Xumetik jaialdiko iazko kartelak erraztu dizu honen sorkuntza lana?**

Haren ostean, Usurbilen proiektu desberdinak atera zaizkit. Gehienek oinarri gisa

hartzen dute kartel hura eta egia esan, bada presio puntu bat. Baina iruditzen zait egun bakoitzak bere irudia izan behar duela eta bakoitzak eskatzen dituen ezaugarrietara egokitzen saiatzen naiz. Kasu honetan, proposatu nien sareetarako bideo labur bat sortzea, txalapartaren eta egunaren beraren dinamismo hori irudikatzeko.

### **Lan hauetan non ikusi daiteke Malenen marka?**

Orain ari naiz nire lanak ikusgai jarri eta jendeak kontaktu gisa izan dezan webgunea osatzen, baina egia esan, lan dezente atera zaizkit. Laster martxan jartzea espero dut. Instagramen ere saiatzen naiz argitaratzen egindako proiektuak jendeak ikusi dezan nire estiloa eta zer den egiten dudana.

### **Herriaren erakuslehoi lana ere egiten zabilta. Gertuagon ere bazabilta sare sozialekin.**

Irailtik nabil Gertuagoren sare sozialak eta webgunea kudeatzen, herri merkataritzaren sustapenean. Hauen bidez erakutsi nahi dugu herri txikietan ere badaudela behar ditugun produktu eta zerbitzuak.

## **"NIRE HELBURUA ZEN EGUNAREN DINAMISMO ETA TRANSMISIO HORI ERAKUSTEA"**

MALEN AIERBE

## **"ORAIN ARI NAIZ NIRE LANAK IKUSGAI JARTZEKO WEBGUNEAK OSATZEN"**

MALEN AIERBE



Santueneko frontoi ondoko lokalean batu zuten jasotako guztia. Janaria, arropa eta garbikariak, nagusiki.

## Valentziara bidaltzeko material ugari batu dute Santuenean

Donostiako bilketa puntu handi batera garraiatzeko laguntza biltzen aritu ziren Santuenean aste hasieran. Valentziarako elkartasun bilketa honek aurreikuspen guztiak gainditu zituen, ekimen honen sustatzaileen esanetan.

Hondamendi latza bizi dute Valentzian; ehunka hildako eta desagertu, zenbaezinak diren kalte materialak... Bizi duten egoera oso larria da, oinarrizkoena ere falta zaie. Hondamendia bera hasi baino ez da egin eta harekin baita elkartasun olde itzela han eta hemen, Euskal Herrian barrena, Usurbileraino ere heldu dena. Ondoko argazkian duzue, Santueneko frontoi ondoko lokalak aste hasieran zuen itxura. Santuenea Kultur Elkarteak valentziarrek hain beharrezkoak dituzten oinarrizko gaiak biltzen aritu ziren, gero Donostiako bilketa gune handiago batera eramateko.

### Eskuzabaltasun itzela

Lotune lanak egin nahi zizuten, herritarrei elkartasun ekimen honetan parte har-

tzeko aukera erraztea, laguntza eskaintzeko aukera gerturaztea. "Sare sozialen bidez zabaldu genuen deialdia eta harrera izugarria izan zuen", adierazi digute ekimen honen sustatzaileek. Albiste honi atxikitako argazkia ateratzeko unean bigarrenez ari zen betetzen elkartasunez, auzoko frontoi ondoko lokala. Izan ere, astelehen goiz horretan, furgoneta bete artikulua garraiatu zuten Donostiako Reale Arenan kokaturiko bilketa puntuetako batera.

Bertaratu direnen eskuabaltasuna nabarmendu eta eskertu dute. "Karro beteak ekarri dituzte. Denetarik; arropa eta manta berriak... Norberak ahal duen neurrian, ekarpen handia egin du". Denetariko produktuak ikusi

genituen; elikagaiak, garbitasun produktuak, arropa...

### Laguntza errazteko


Aurreko astean, Valentziako hondamendia gertatu eta gutxira, Donostiako bilketa puntu batera joanda bururatu zitzairen "bizitzen ari diren infernua ikusita" elkartasun ekimen hau abiaraztea. Santueneko lagun talde batek iaz egindako bazkari batetik soberan zuten dirua Valentziako

**"SARE SOZIALEN BIDEZ ZABALDU GENUEN DEIALDIA ETA HARRERA IZUGARRIA IZAN ZUEN"**

bizilagunei laguntzeko erosketak egin eta horiek Anoeta-ko bilketa puntura bideratu zituzten. "Harrিতuta geratu ginen jendearen joan-etorriekin. Laguntzeko gogoia du jendeak". Halere, jabetu ziren askok ez zutela izango gune hauetara joateko aukera edo modua. Horregatik "bururatu zitzaigun, zergatik ez, auzo mailan bilketa hau egitea". Zubi-lana egitea, auzoaren eta Gipuzkoa mailako bilketa puntu nagusien artean. Sare sozialen bidez zabaldu zuten deialdiak haien aurreikuspenak gainditu zituen. Auzoak soilik ez, herritik ere ekarpen handia egin da.

Iragan igandean hasi ziren bilketa lanekin. Asteartera arte iragarri zuten goiz eta arratsalde bideratuko zutela elkartasun ekimen hau. Hala plazaratu ez bazuten ere, hasiera batean bazuten deialdi hau aste osora luzatzeko asmoa. Baina bilketa puntu handiago hainbatetan ere jaso den elkartasun itzela Valentziara bideratzea da orain asmoa. Momentuz, beraz, bere horretan amaitutzat eman dute bilketa kanpaina hau Santuenean.





'Izurde mutikoa' filma eskainiko dute igande honetan Sutegin.

## 'Izurde mutikoa', euskarazko zine zikloaren hasieran

Igandean, arratsaldeko 17:00etan hasiko da "Izurde mutikoa" filmaren proiektzioa eta sarrerak dagoeneko eskuragarri daude usurbilkultura.eus web orrialdean.

Haurrei zuzenduriko negu parteko euskarazko zine zikloa hastera doala iragarri dute Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek. Lehen proiektzioa, iganderako, azaroaren 10erako iragarri dute, ohi bezala 17:00etan Sutegiko auditorioan.

### Sinopsia

"Izurde batzuek itsasoan aurkitzen duten haur bat erreskatatzen dute eta bere familiako beste bat bezala hazten dute. Kezkarik gabeko bizitza bizi du olatuen azpian, muns-

tro gaizto batek itsaspeko munduaren gaineko boterea hartzen duen arte. Umea lehorrera erbesteratzen dute, eta Murvarid kapitain onberak han hartzen du. Kapitainaren eta Bola de Nieve izurdearen lagun leial eta ia anaia-aren laguntzarekin, haurrak bidaia bat egiten du bere benetako jatorriaren misterioa argitzeko".

### Sarrerak

3,20 eurotan eskuratu ahalko dira aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

## KzGunea goizez zabalduko dute

Azaroan, Usurbilgo KzGuneak goizez irekiko ditu atea. 9:00etan hasi 13:00ak bitartean. Ikastaro hau eskainiko dute bi aste barru:

- Azaroak 18-29, 9:00-11:00: "Ofimatikatresnak-LibreOffice". Informazio gehiagorako:
- 943 023 684
- tutor.usurbil@kzgunea.net

## Arto ogia egiteko saioa Txokoalden

Txokoaldeko Txokoargi elkarteak antolaturiko saioa azaroaren 23an izango da, 10:00-12:00 artean. Idoia Artuzamunoak bideratuko du. Izena aurrez eman ahalko da 10 euroren truke, 619 591 849 telefono zenbakian (16:00-18:00 artean deitu). Asko jota, hamabi lagunentzako tokia egongo da.

## Zaintzaren pedagogia aztergai

Pelaioeneko Emakumeon Etxeak udazken parte honetarako zaintzaren inguruan antolaturiko zikloaren baitan, "zaintzaren pedagogia" izeneko solasaldia programatu du ostegunerako, azaroaren 7rako, 18:00etan. Nora Salbotx idazle eta irakasleak bideratuko du saioa.

## Orientazio jokoak Aginagan

Aginagako Antxomolantxa elkarteak taldeka orientazioa lantzeko ibilaldia antolatu dute azaroaren 17an Aginagan. Goizeko 10:30ean abiatuko da eta bi ordu inguruko iraupena izango du ariketak. "Lagun taldean nahiz familian etor zaitezke, baita bakarrik ere. Animatu eta gozatu aire libreaz".

## Dantza garaikideko ikastaroa

Saioak asteazkenero izango dira, 19:00-20:30 artean Oiar- do kiroldegian. Ikastaroa urriaren 23an hasi eta ekainera arte luzatuko da. Izena emateko epea azaroaren 8an amaituko da. Eta izena eman ahal izateko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 647 893 086 (Eneko).

## "Ostirala iritsi da!!" ikuskizunerako sarrerak salgai

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore laukotearen ikuskizun berriena ezagutzeko aukera izango da NOAA!ren eta Udalaren eskutik abenduaren lehenean, goizeko 11:30ean Oiar do kiroldegian.

- Sinopsia: "Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertar- ratutako lagunek Txapas irak- aslearekin batera, bere azken laneguna igaroko dute. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da



Abenduaren 1ean, Oiardon.

ostirala! Jantzi sudur gorria eta zatoz gurekin".

- Sarrerak 8 eurotan eskuratu daitezke usurbilkultura.eus plataforman.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**txirriStra**  
TABERNA  
• PLATER KOMBINATUAK  
• BOKATAK • PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PATXI JATEXEA  
• bazkariak EGUNERO  
• afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361



Merkatari zaintzaileen sarea aurkeztu zuten ekainean. Sare honi lotutako bi egitasmo iragarri dituzte.

## Herri merkataritza zaintzaileari lotutako bi ekimen

Bi egitasmo hauen helburua da "herritarren arteko zaintza eta erlazio sareak indartzea eta bultzatzea".

Usurbil herri zaintzaileagoa bilakatzeko bidean, hiru ekimen aurkeztu zituzten Udalak eta herri eragile hainbatek ekainean; martxan den "Usurbilen, goazen kalera" dinamikarekin batera, jai zaintzaileen eta merkataritza zaintzaileen egitasmoak.

Azken honi, herri merkataritza zaintzaileagoa izateari dagokionean, sustatzaileek esan zuten, "ekimenaren helburua da, herritarren arte-

ko zaintza eta erlazio sareak indartzea eta bultzatzea. Horren baitan ere pertsona zaurgarrien detekzioa eta artatzeko gizarte zerbitzuek komunikazio kanal bat zabaltzea, prebentzioari begira", azaldu zuten.

### Sorospen ikastaroa

Usurbilgo herri merkataritza zaintzaileagoa izateko bidean, bi ekimen antolatu dituzte estreinatu dugun azaroko aste

honetarako. Batetik, sorospen ikastaroa antolatu dute herriko merkatarientzat. Izan ere, "merkataritza zaintzaileen sarea martxan jarri zenean, herriko dendariak adierazi zuten baliagarria izango litzatekeela sorospen ikastaro bat jasotzea". Horri erantzuteko antolatu dituzte bi trebakuntza saio.

Antolatzaileen arabera, "larrialdiei aurre egiteko ikasketa teoriko-praktikoa jasoko dute, baita bihotz-birika suspertzea egiteko oinarriko jakintza ere. Azaroren 5ean eta 7an izango da ikastaroa, merkatariei egokitutako ordutegian (13:30etik 15:30era), Potxoenean. Parte hartu nahi dutenek udalera deituta edo mirisarri@usurbil.eus -era idatzita eman dezakete izena".

### Gozogintza kanpaina

Horrez gain, gozogintzari lotutako kanpaina abiaraziko dute, "Herri zaintzaileak gozoak eskaintzen dizkizu: topatu eta gozatu!" aldarrizpean. Hilean behin, Oinarrizko Lanbide Heziketako sukaldaritzako ikasleek prestatutako gozoak eskainiko dituzte herriko saltokietan, hilero egun batez, bi dendetan. Lehena, ostiral honetan, hilak 8 egingo dute eskaintza hau NI eta Ane ile-apaindegietan, goizeko 11:00etatik aurrera.

"Udal-brigadak eramango ditu gozoak establezimenduetara. Maiatzera bitartean, bina establezimendutan eskainiko dira gozoak", iragarri dute.

Modu horretan, garai batean jubilatu elkarteei zuzenduta egindako ekimen hauxe da berreskuratzera doazena. "Gozoak non izango diren jakiteko euskarriak jarriko dira txanda bakoitzean", aurreikusi dute sustatzaileek. Jakiok nola prestatu irakasteko, gainera, sukaldaritzatailer bat egin asmo dute Egurtzegin Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek eta haiekin, eguneko zentroko nahiz zaintzadun etxebizitzetako bizilagunek. Bederatzi lagunen parte hartzea espero da.

## SOROSPEN IKASTAROA ANTOLATU DUTE HERRIKO MERKATARIENTZAT

## 2025eko udal aurrekontu proposamena aztergai

Aurrekontu proposamenaren berri emateko, udal-gobernu taldeak bederatzi aurkezpen iragarri zituen. Bilera-erronda osatzeko, bi saio falta dira. Zubieta da bat, aste honetan egingo dena. Usurbilgo erdiguneko beste, datorren astean Potxoenean egingo dena.

### Azaroak 7, osteguna

18:00 Zubieta bilerak Kaxkapen egingo da. Udal aurrekontuaz gain, bidegorriaren proiektua aztertuko dute.

### Azaroak 12, asteartea

18:00 Herri erdiguneko bilera Potxoenean egingo da.



Lehen bilkurak Aginagan (argazkian) eta Kalezarren egin zituzten.



Mundualdia ekimenaren sustatzaileak, kartelak eskuartean dituztela.

# Aurtengo Mundualdia hemen da

Sorterrien Usurbil plazaratuko da beste behin, ate joka dugun Mundualdian. Azaroaren 16rako iragarri dute sustatzaileek aurtengo edizioa. Hitzordu honen baitan egingo da baita, Bizipoza elkartearen zortzigarren jardunaldia Sutegin.

Ez da faltako, noski, Usurbilgo sorterri ezberdinetako herrikideek sukaldaturiko jakien dastaketa arrakastatsua, herrialde orotako usurbildarrak hartuemanetan jartzen dituen. Antolakuntzatik jakinara zi dutenez, momentuz, hamar postu jarriko dituzte eta haieran, zortzi herrialde egongo dira ordezkatuak: "Venezuela, Nikaragua, Sahara, Brasil, Kolonia eta Pakistaneko bana, eta Kubako eta Mauritaniako bina". Musikaz girotua egongo da Mundualdia. 'Son de Hoy' taldea gonbidatu dute aurtengoan. Kubako musika tradizionalaz gozatzeko aukera izango da.

## Usurbilgo hizkuntzak

Jatorri aniztasuna plazaratzen duen jaialdi honen abiapuntuan, hizkuntzetan jarriko

dute arreta. "Datozen hilabeteetan, herrian hitz egiten diren hizkuntzetan jarri nahi dute arreta udalak eta Aniztasun Kontseiluak, eta lanke-ta abiatua dute, dagoeneko, Garabiderekin: horren berri emateko baliatuko dute aurtengo Mundualdiko oholtza". Euskararen esperientziatik, hizkuntza gutxituak biziberritzen diharduen gobernu kanpoko erakundeak proiektu honen nondik norakoen berri emango du laster.

Aurretik, goizerako beste bi hitzordu iragarri dira Mundualdiaren baitan. Batetik, Zirimara egitasmoko familia plana egingo da. Tokiko nahiz urrunagoko jolasetan parte hartzeko aukera izango dute familiek frontoi inguruan. Tarte horretan, Sutegin, arrazakeria hizpide izango duen

zortzigarren jardunaldia egingo du Bizipoza elkarteak.

## Bizipoza jardunaldia

Aurreko bi urteetan bezala, Usurbil hautatu du Bizipoza elkarteak bere aurtengo jardunaldietarako. Zaintza sistema publiko komunitarioa izan zuten hizpide 2022an, Bizipoza Eskola aurkezteko baliatu zuten iazko hitzordua. Aurtengoa "Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen" aldarripean egingo dute. "Arra-

**"HERRIAN HITZ EGITEN DIREN HIZKUNTZETAN JARRI NAHI DUTE ARRETA DEITZAILEEK"**

zakeria ez da arazo indibiduala bakarrik, baizik eta gure gizarte-egituretan eraiki eta errotutako fenomeno da. Desberdintasuna eta diskriminazioa betiketzen duten jarrera, praktika eta politike-tan agertzen da. Ekintzaile eta norbanakoen bizipeneta-tik abiatuta, "Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen" jardunaldiak arrazakeriaren sustraiak hobeto ulertzea du helburu, zeintzuk diren honen ondorioak eta nola deseraiki ditzakegun egitura horiek gure eguneroko bizitzan", antol-tzaileen esanetan. Gogorara-zi dutenez, "elkarrekin kon-tzientzia sor dezakegu eta aldaketa esanguratsuak sus-tatu gure gizarte-egituretan eta zure ahotsa eta presentzia funtsezkoak dira gizarte bi-dezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko. Denona eta denontzat izango den Euskal Herria eraikitzeko bidean arrazakeriaren aurkako bor-roka ere guztion erantzuki-zuna da". Arrazakeriaz uler-tzen duguna, elkartearen begi-rada edota "euskara eta kul-turartekotasuna hezkuntza komunitatean", hizpideon bueltan arituko dira. Hitzor-du honetarako izena eman dezakezue, [labur.eus/bizipoza8](http://labur.eus/bizipoza8) helbideko formularioan. Informazio gehiago, [bizipoza.eus](http://bizipoza.eus) atarian jaso ahalko duzue.

## Mundualdia

### Azaroak 16, larunbata

- **09:30-13:30** Bizipoza elkartearen VIII. Jardunaldia Sute-giko auditorioan: "Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen".
- **11:00-12:30** Zirimara fami-lian frontoi inguruan: bertako eta hainbat jatorritako fami-liekin jolasak.
- **18:00** Usurbilgo hizkuntza aniztasuna lantzeko proiektu-aren aurkezpena. Horren ostean, hainbat jatorritako jakien dastaketa eta Son de Hoy taldea, Kubako musika tradizionala.



Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia da. Joseba Tapiak eta Onintza Gartziak urtero-urtero eskatzen dute bat etxerako.

## "Zuberoako ikastolen aldeko saskietako produktuak kalitate handikoak dira"

ONINTZA GARTZIA ETA JOSEBA TAPIA SASKIEN OHIKO EROSLEAK

Zuberoako ikastolak 2003. urtean hasi ziren tokiko produktuekin osaturiko saskiak saltzen. Usurbilen berehala osatu zen talde bat eta urteotan lan handia egin dute saskien salmentan. Garrantzitsuenak ordea, saskien erosleak dira eta horietako birekin izan gara.

### Noiztik erosten duzue saski hau?

**Joseba Tapiak:** Urte batzuk izango dira. Lauzpabost urte bai.

**Onintza Gartzia:** Duela dozena bat urte etorri ginen hona bizitzera, eta orduantxe ezagutu nuen Lontxo, eta kanpaina hau. Zarauzko ikastolan lan egiten dudanez, han ere hasi ginen kanpaina hau zabaltzen, eta orain arte.

**Beraz, hemen ezagutu eta Zarautzera hedatu zenuen saskien salmenta, Onintza?**

**O. G.:** Bai, dena den, geroztik hona aldatu egin da kanpainaren funtzionamendua. Lehen hemendik hara ibiltzen ginen, saskiaren salmenta gure inguruan zabalduz eta beste eremu batzuetara eramanez. Lehen horrela ibiltzen ginen.

Orain berriz, ikastoletara iristen da zuzenean mezua eta banaketa ere beraiek egiten dute. Lehen hona ekartzen zuten, eta gu arduratzen ginen leku ezberdinetara zabaltzeaz.

### Saskien banaketa ikastolen elkartetik bideratzen dute.

**O. G.:** Ez du Errigoraren dimentsioa hartu, inondikinora ere, baina zenbait gauza aldatu egin dira. Orain harreman zuzenagoa dute salmenta puntuekin.

### Zuzeneko harreman hori galdu da akaso?

**O. G.:** Bai baina guk berdin-berdin jarraitzen dugu gure inguruan zabaltzen. Erosle batzuk guregana hurbiltzen dira galdezka, baina orain toki gehia-

gotara iristen denez kanpaina, lehen guregana etortzen ziren askok orain euren herrietan egiten dute enkargua.

**Euskara lagundu Xiberoa gozatu**z lema dator saski guztietan idatzita. Badu militantzia kutsua, baina era berean, saski honek inguru honetan ohikoak ez diren produktuak kontsumitzeko aukera eskaintzen du, ezta?

**J. T.:** Gure etxean, kalitatea eta militantzia dira Zuberoako ikastolen aldeko saskia erosteko arrazoi nagusiak.

Lurraldetasunari dagokionez, oso ahaztua dugu Zuberoa. Muga hori oso fuertea izan da, eta oraindik ere bada. Usurbildarrek gainera, aspalditik

**"DUELA 12 URTE ETORRI GINEN HONA BIZITZERA, ETA ORDUANTXE EZAGUTU GENUEN KANPAINA HAU"**

ONINTZA GARTZIA

harremana dute bertako ikas- tolekin. Haruntza joanez, hangoei lagunduz. Beraz, militantziatik asko du baina batez ere kalitatetik. Oso produktu onak egiten dituzte.

**O. G.:** Saskien aitzakiarekin Zuberoara joan ginen alabe- kin, hango ikastola ezagutze- ra, eta harreman polita osatu dugu hangoekin. Handik ere urtero etortzen dira guregana. Zentzu horretan, aukera ederra eskaini digu euskal herritartasun hori betetan bizitzeko.

**Erosleak ez ezik, saski hauen sustatzaileak ere bazaretela esan daiteke.**

**J. T.:** Nire kasuan, oparitzeko produktua ere bada. Jende askorekin zorretan izaten naiz eta saski hau opari zoragarria da. Ondo bildua dator gainera, mezu eder batekin... Oparitzeko oso egokia da. Bide batez, Zuberoan zertan ari diren adierazteko ere ederra da.

## "OPARITZEKO PRODUKTU EDERRA DA. ONDO BILDUA DATOR GAINERA"

JOSEBA TAPIA

## Zuberoako lehen sektorea ere laguntzen duzulako, bide batez.

**J. T.:** Hori da. Eta zuberotarrek beti egiten duten moduan, elkar lagunduz. Frantziari urrun geratzen zaizkie sektore hauen beharrak eta auzolan- ean aspalditik ohituak daude. Guk ere ezinbestean horra jo beharko dugu, eta hau izan daiteke modu bat.

## Usurbilgo "egoskor talde baten" ahalegina

Duela 25 urte hasi zen "Usurbilgo egoskor talde bat" Ur- diñarbera (Zuberoa) joaten. Urtero-urtero, herri afari bat prestatzen dute bertan. "Lehenbizi Xiberoko Botzaren alde egiten zen, eta azkenaldi honetan Iparraldeko ikastolen Integrazio Batzordearen alde izaten da", Lontxo Zubiriak aditzaera eman digunez. "Aurten, azaroaren 16an ospatuko dugu. Lotura horri eustea lortu dugu eta 25. urteurrenean ospakizun berezi bat egiteko- tan gara".

## "IAZ 200DIK GORA SASKI SALDU ZIREN USURBILEN"

LONTXO ZUBIRIA



Larunbat eguerdian kalejiran ibiliko dira eta arratsaldean Sutegin arituko dira.

## Oilarrak talde zuberotarraren kalejira eta kontzertua

Oilarrak taldeak 30 urteko ibilbidea osatu du. Gaur egun, 20 lagun aritzen dira kantari. 1994tik hona, ekitaldi ezber- dinetan hartu dute parte eta hainbat disko grabatu dituzte. Errepertorio zabal bat dute, "non akapela kantoreak edo instrumentuen bidez diren bertsio zunbait aldizkatzen diren", Oilarrak taldekoek jakinarazi diguten moduan. "Hala nola, akordeioa, perku- sio, gitarra, xirula edo biolina".

### Eguerdian kalejira, arratsaldean kantaldia Sutegin

Nafartarrak taldearen ekime- nez, Oilarrak Usurbilen aritu- ko dira larunbat honetan. Emanaldia bikoitza izango da

gainera. Eguerdiko 12:00etan kalejiran ibiliko dira eta arratsaldeko 18:30ean kontzertua eskainiko dute Sutegin. Hor- taz, Zuberoatik helduko den kantari kuadrillak egun osoa emango du gure artean, kan- tari.

### Azaroak 9 larunbata

- Eguerdiko 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko dira eta kalejiran ibiliko dira herrian barrena.
- Arratsaldeko 18:30ean Oila- rrak taldeak kantaldia eskai- niko du Sutegi aretoan.
- Sarrerak: 10 eurotan salgai Lizardin, eta egunean bertan Sutegin.
- Antolatzailea: Nafartarrak.

## Orain eskatu eta abenduaren erdialdean jasoko duzu saskia

Iaz 200dik gora saski saldu ziren Usurbilen. Eta iaz beza- laxe, aurten ere bi modutara egin daiteke saskiaren eskae- ra:

- NOAUA Kultur Elkartean egoitzan eskatu.
- Internetez, ikaskoli.eus web orrialdearen bidez enkargatu.

Saskien banaketa abendu- ren erdialdean egingo da eta NOAUA!ren egoitzan jaso ahal izango da, edota Santomas azoka egunean bestela, Na- fartarren postuan.



Pettarra saskia.

### Pettarra (50 euro)

Ahate gibel berrosatua, ez- tia, ardi gazta kiloa, bixkotx ga- tzatuak, pastak.



Arbaila saskia.

### Arbaila (57 euro)

Eztia, bixkotx artisanalak, bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximenta, tisanak, pastak.



Basabürüa saskia.

### Basabürüa (68 euro)

Xerri pateaa, bixkotx artisa- nalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.

# Artisau Azoka, Santu Guztien Eguneko protagonista

Bertako nahiz kanpoko artisauak hurbildu ziren. Euren sormen-lanak frontoian eta Askatasuna plazan ipini zituzten salgai.

Eguraldi ederrarekin eta jai eguna lagun, Aitzaga elkarteak antolatutako 28. Artisau Azoka egin zuten Askatasuna plaza eta frontoian. Bi lekuak postutxo bezala bete ziren eta denetarik produktuekin: poltsak, belarritakoak, mimoz egindako janaria... Goizeko 11tan irekiera egin zutenerako hasi zen jendea hurbiltzen herri-gunera eta salmenta politik egiteko aukera izan zuten artisauak. Tartean, hiru postu herritarrek bete zituzten. Irati Gabellanesek eta Eider Makazagak osatutako bikoteak

bitxiak eta eskuzorro eta diru zorroak jarri zituzten eskura, Josune Estellak ere eskuzorroak eta oihalez egindako produktuak atera zituen mahai gainera eta Olatz Zabaleta herritarrak ere eskuz egindako produktuak eraman zituen. Nolaez, Udarregi Ikastolako DBH4ko ikasleek ere gozogintza postua jarri zuten ikasturte amaierako bidaia ordaindu ahal izateko dirua ateratzeko, eta herritar ugari talogile lanetan aritu ziren hamaiketako bikainak ateraz Askatasuna plazara hurbiltzen zen orori..



Herritar bat taloak egiteko orea prestatzen.



Herritarrak produktuez galdezka Askatasuna plazan.



Egurarekin eta adarrekin egindako etxetresnak ere salgai egon ziren.



Udarregi Ikastolako DBH4ko ikasleak gozoak saltzen Askatasuna plazan.



Irati Gabellanes eta Eider Makazaga herritarrak euren postuan.



Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua eskualdeko udal ordezkariekin batu zen aurreko astean.

## "Eskualde honek ibilbide turistiko interesgarria eskaintzen du"

Azahara Domínguez Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatua Buruntzaldea bisitatu zuen aurreko astean. Eskualdeko udal ordezkari gehiagorekin batera, Usurbil Museo Irekia ibilbidea osatu zuen.

Azahara Domínguez foru diputatua eskualdeko alkate eta arduradun turistikoekin bildu zen, eta haiekin partekatu zuen bere departamentua bultzatzen ari den estrategia turistikoa. "Estrategia horren helburua jarduera desestacionalizatzea eta deslokalizatzea da, industria horrek sortzen duen aberastasuna modu bidezkoagoan bana dadin lurralde osoan", Foru Aldundiko iturriek aditzera eman dutenez.

Bisitaren amaieran, Azahara Domínguez diputatua adierazpen hauek egin zituen: "Beterrri-Buruntzak ibilbide turistiko interesgarria eskaintzen du. Gure lurraldean abangoardiako artearen erakusleho ezin hobea bihurtu da, Jose Luis Zumeta edota

Eduardo Chillidarena; gainera, gure lurraldeko tradizioak errotenetako eta bisitarien artean gehien bisitatzen den arteterik baten sorlekua da: sagardoa. Eta hori guztia naturazaleei aukera ugari eskaintzen dizkien ingurune natural pribilegiatu batean kokatuta dago".

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentutik eskualdeekin eskuz esku lanean jarraituko dutela dio Domín-

## "LURRALDE HAU ABANGOARDIAKO ARTEAREN ERAKUSLEIHO EZIN HOBEA DA"

guezek, "Gipuzkoara iristen diren turismo-fluxuek gure lurraldearen barnealdea ezagutu dezaten eta, horrela, turismo-industriak sortzen dituen etekinen banaketa bidezkoagoa eta orekatuagoa izan dadin".

### Eskualdeko ordezkariak

Azahara Domínguez diputatua gain, Patxi Ibarguren Beterrri-Buruntza mankomunitateko presidenteak, Helene del Rio gerenteak eta Andrea Etxauri jasangarritasun eta turismo teknikariak ere parte hartu zuten bisitan. Eta hauekin batera, Andoni Alvarez, Xabier Urdangarin, Jorge Segurado eta Agurtzane Solabarrieta Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbilgo alkateek, hurrenez hurren. Iratxe Begiristain zinegotzi usurbildarra ere bertan izan zen.

'Usurbil, museo irekia' ibilbidea Hernanin, Mankomunitatearen egoitzan egindako bilera baten ondoren, taldea Usurbilera hurbildu zen, eta 'Museo Irekia' ibilbidea osatu zuen. Remigio Mendibururen eskultura, Karlos Zabalen Asakatasuna plazako zeramikak eta Zumetaren murala bisitatu zituzten, besteak beste.

## "Lau elementuak" film laburren emanaldia

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan, euskarazko sorkuntza sustatzea xede duen proiektu honen bigarren edizioan ondutako film laburrak proiektatuko ditu Usurbilgo Udalak eta udal hau kide duen Udalbiltzak, azaroaren 17an, 18:00etan Sutegin. Emanaldirako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Lau dira ikusi ahalko diren film laburrak: Arrigurren "<3", Alba Lozanoren "Ütlandsk", Aitzol Saratxagaren "Ehiza" eta Pette Etxebarriaren "Oiogorri". Sortzaileok hurrenez hurren Uharten, Oartzunen, Legution eta Antzuolan zein Aiherran eginiko egonaldietan eta hango bizipenetan oinarrituta ondu dituzte ikus-entzunezko lanok.

### Parte hartzea zabalik

Gogoan izan, abian da "Geuretik Sortuak" egitasmoaren hirugarren edizioa. Parte hartzaileek Euskal Herriko herri batean eginiko bizpahiru asteo egonaldian sorkuntza lan bat bideratzeko aukera izango da; komiki (15-20 orrialdekoa), antzerki, zine (20-25 minutuko filma) edo literatura obra bat (30.000-40.000 karakterekoa).

Deialdi honen baitan, sormenerako eta hedapenerako beka bana eskainiko da. Lanak 2025eko iraileko udazkenean aurkeztu beharko dira beranduenez. Hedapen fasea 2026ko urtariletik irailaren 30era bitarte egin beharko da.

Euskal Herri osoko 16 urteko gorako kulturgileek parte hartu ahalko duten deialdi honetan, banaka nahiz taldeka. Urriaren 23tik hilabete naturaleko epea izango da eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago, urriaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso ahalko duzue.



Jon Mikel Elexpe eskubaloi jokalaria Usurbil KE utzi eta Pulpo EKrekin ari da.

# "Trena bizitzan behin pasatzen da eta hartzea erabaki nuen"

**JON MIKEL ELEXPE CABRERA** ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloian aritzen da Jon Mikel Elexpe beste usurbildar gazte ugari bezala. Usurbil KE-ko harrobiko jokalaria bada ere, Pulpo EK taldean dihardu aurten.

## Denbora eta energia asko eskaintzen diozu eskubaloiari?

Orain arte, bizitza osoan, Usurbilen aritu naiz eskubaloian. Aurten, Zumaiako Pulpo EK taldearen deia jaso dut. Haiek joan zen urtean maila igoera lortu zuten, eta Usurbil baino maila bat gorago dabilta aurten. Orain arte, euren aurka aritzen ginen Usurbil KEko kideok, baina igoerarekin, bi taldeak maila ezberdinetan daude aurten. Igoera lortu bezain pronto jaso nuen presidentearen deia eta bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman nion gurasoekin hitz egin ondoren. Trena bizitzan behin pasatzen da eta hartzea erabaki nuen eta oso gustura nago. Hasiera

batean, lau entrenamendu egin behar genituen eta asteburuko partida. Aurten, ordea, Zumaiaren talde pila bat sortu dira eta entrenamendu bat gutxiago daukagu. Usurbilen ere hiru entrenamendu izaten dira astean eta partida. Beraz, gauzak ez dira gehiegi aldatu zentzu horretan. Zumaiaraino joan beharra, ez besterik.

## Txapelketa garaian parrandarako tarte gutxi izango duzue.

Zertxobait gehiago zaindu beharra sentitu dut. Agian, konpromiso aldetik gehienbat. Hala ere, bizitza normala egiten jarraitzen dut. Ez naiz inoiz izan larunbatean partida izanda ostiralean parran-

dara aterako dena. Normalean, hori asko errespetatzen dut beti. Zumaiaren konpromiso hori nabari dut eta iruditzen zait jokalaria guztiok oso serio hartzen ditugula partiduetan. Larunbat arratsaldetan partiduetan izaten ditugu, eta aurreko egunetan zaindu beharra dago larunbatera egoera ahalik eta onenean iristeko.

## "EZ NAIZ INOIZ IZAN PARTIDA BEZPERAN PARRANDARA ATERA IZAN DEN PERTSONA"

## Talde kide guztiak zumaiarrek dira?

Hala izan dira ni iritsi arte, eta orain zarauztar bat fitxatu dugu berriki, duela pare bat aste edo. Infantiletan hasi eta seniorretara urte askoan euren kontra aritu gara, eta beraz, nahita nahiez ezagutzen nituen lehenagotik jokalaria. Euren eskatu zioten presidenteari niri talde kide izateko gonbitea luzatzeko. Beraz, oso gustura nago horrekin.

## Beste kirol jardueratan ere arituko zinen txikitzen. Noiz egin zenuen eskubaloiaren aldeko hautua?

Gehienei gertatu zitzaien bezala, eskola kirolean futbola eta eskubaloian bi urtez aritu ondoren, aukeratzeko momentua iritsi zen. Nik argi neukan futbola ez zela nirea eta eskubaloiaren aldeko hautua egin nuen. Ezker gutxi daudela esan ohi da beti, eta ni kasualitatez ezkerrean batzuk ireki dizkit. Askoz gehiago betetzen ninduen eskubaloiak eta kantxan eman nezakeenak. Nire adinekoren artean, eskubaloiara joatea erabaki genuen denok eta taldea ateratzeko inolako arazorik ez genuen izan. Kuadrilakoak izan gara taldeko kideak.

## Nola hartu dute zure talde kide ohiek taldea utzi eta Zumaiara joan izana?

Aurrendenboraldian lagunarteko partida izan genuen bi taldeek elkarren aurka. Oso urduri nengoen momentu hartan eta ez nuen jokatu nahi, baina behin partida hasita horretan zentratu nintzen. Partidetan ez dago laguniki eta garaipenagatik borrokatu behar da. Zumaiara joango nintzela esan nienean, pena sentitu zuten horrenbeste urte elkarrekin jokatzen aritu ostean. Bestalde, oso gustura eta pozik daude halako aukera izan dudalako eta aprobeztatzera bultzatu nauten. Esan beharra dago lagunarteko partidua Zumaiak irabazi zuela, eta eskerrak,



→ bestela entzun beharko nituen ederrak.

### Exigentzia maila altuagoa da Pulpo EKn?

Asko igo da exigentzia maila. Ez nuen espero horrenbesteko aldaketa izaterik. Aurrendenboraldian nabaritu nuen jauzia eta entrenatzaileek oso altua jarri dute entrenamenduetan ere. Gure helburua maila honi eustea da eta horretarako lan egin beharra dago. Liga jada hasi da eta hanka onarekin hasi ez bagenuen ere, pixkanaka puntuak lortzen hasi gara.

### Euskadiko selekzioarekin ibili zinen.

Bizpahiru urtez ibili nintzen selekzioarekin. Infantiletatik jubeniletako azken urtera arte izaten da selekzioarekin aritzeko aukera. Hiru urtez joan nintzen Espainiako txapelketa selekzioarekin eta kuadrilakoa dudan Eneko Furundarenarekin eta Amets Aburruzarekin. Gainontzekoekin, elkarren aurka indarrak neurtzetik denok batera taldea egin eta ezezagunen aurka aritzea oso arraroa da, baina oso polita aldi berean.

### Nolakoa da beste taldeekiko harremana selekzioan?

Lehiakortasuna nabari da. Neurri batean, oso modu egoistan jokatu jende askok, taldean pentsatu beharrean nabarmentzeko bidetzat hartzen dute. Gogorra izan daiteke eta zikina ere bai zenbaitetan. Partiduan gauza asko gerta daitezke eta esango nuke jokalariek guztiok izan dugula beroturen bat besteren batekin, baina momentuko kontuak izaten dira.

**Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?** Ikasi dudan guztia Usurbili esker izan da eta esan beharra daukat hiru urtez entrenatzaile oso on bat izan nuela: Mikel Alzaga. Azken bi urteetan Xabat Beloki izan dut, eta zalan-tzarik gabe bi entrenatzaile horiek izan dira inoiz izan



Jon Mikel Elexpe, Zumaiaiko elastikoarekin.

ditudanentrenatzaileerik onenak. Ausartuko nintzateke esatera Usurbilek inoiz izan dituen entrenatzaileerik onenak direla. Jarraitzea animatu gintuzten biek eta asko hobetu genuen.

### Zu zeu entrenatzaile lanetan aritu zara?

Bai, neskekin eta mutlekin aritu nintzen eta maila askotako taldeekin. Kadeteak kenduta, gaztetxo talde gehienak entrenatu ditut. Asko gustatzen zitzaidan, baina denbora asko kentzen du, batez ere, asteburuetan.

### Eskubaloitik bizitzea oso gutxiren aukera da. Zer ari zara ikasten?

Bi urte eta erdi lanean aritu naiz eta orain, Zumaian esku-

baloian hasi naizenez, lasaia- go ibiltze aldera ikasketetara itzuli naiz. Zubietan goi-mailako ziklo bat egitera sartu naiz, lan-karga handiarekin ez ibiltzeko entrenamendu eta partidak ditugunean.

### Etorkizunean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Jokalariek gehienoi pasa izan zaigu noizbait burutik gure momentua bukatu den sentazio hori. Hala ere, eskubaloian gogoz aritzen naiz eta ikaragarri gustatzen zait. Jarraitzeko gogoz nago, baina ez dut etorkizunean pentsatzen.

Erretiratzeko garaia iritsiko da, baina bitartean gozatzen jarraituko dut.

**"PARTIDETAN EZ DAGO LAGUNIK ETA GARAIPENAGATIK BORROKATU BEHAR DA HASIERATIK BUKAERARAINO"**

**"USURBILGOAK ENTRENATZAILERIK ONENAK DIRELA ESATERA AUSARTUKO NINTZATEKE"**



Jon Mikel Elexpe.

## Laburrean

**Zenbaki bat:**  
6.

**Kolore bat:**  
Arrosa.

**Miresten duzun kirolari bat edo entrenatzaile bat:**  
Imanol Agirretxe futbolaria.

**Zurea ez den kantxa bat edo jolasleku bat hauta ezazu:**  
Artalekuko kantxa (Irunen).

**Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:**  
Ez naiz zinemazalea.

**Liburu bat aholkatuko diguzu?**  
Ez naiz irakurzalea.

**Zein da zure abestirik gogokoena?**  
Su ta Gar.

**Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?**  
Instagram.

**Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.**  
Borobila (Mikel Laboa plazan).

**Santixabelak ala Sargardo Eguna?**  
Santixabelak.

**Oporretarako toki bat.**  
Gran Canaria.



Idoia Arrieta historialaria, hitzaldia hasi berrian.



Beñi Agirre, lehen hizlaria, Euskal Herriaren historia laburtzen.

## Euskal Herriko historian sakontzeko aukera aparta

Nafartarrak Kultur Elkarteak solasaldi bat eta erakusketa bat baliatu ditu Euskal Herriko historiaz hausnartzeko.

Nafartarrak Kultur Elkarteak larunbatean ekarri zuen goiz osoa iraun zuen jardunaldi

sorta aparta. Zortzi hizlari izan ziren Sutegiko auditorioan bakoitza bere espezialitatean

murgilduta, eta nolaez, historia ardatz hartuta: Iñaki Idiogoras, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Idoia Arrieta, Beñi Agirre, Joxe Manuel Odriozola, Eneko Bidegain eta Ane Ablanedo.

Euskal Herriarren (nafarren) historia ezagutu eta gaurdaino iritsi diren eta eskoletan erakutsitako historiaren kontaketa hori zalantzan jartzeko lekua izan zen Sutegi. Historia irabazleek eta eliteek kontatzen dutela diote, eta larunbatean

lurralde honen historia ezaigutu eta arbasoen erroei buruz hausnartzeko aukera izan zen, kontaketa elitista eta interesatuetatik at.

Zer da edo izan da Euskal Herria? Eta Nafarroa? Zer gertatu zen Nafarroako Erresumarekin? Nortzuk bizi ziren bertan? Gu haien ondorengoak al gara? Euskaraz hitz egiten al zuten? Nondik gatoz? Galdera horiek eta bestelako asko jarri zituzten mahai gainean Sutegira bildu ziren adituek.



Ixabel Agirresarobe haurren txokoa aritu zen kontu kontari.

## Sutegi udal liburutegia ziklo betean da

“Konta ditzagun ipuinak” saioa eskaini zuen Ixabel Agirresarobek iragan astean eta Jon Artanok “Juana” liburuaz aritu zen

aste hasieran. Azaroa amaiera arte, astero ekitaldi bat programatua du udal liburutegiak. Xehetasunak Agendan (22. or).



Ikusle gehienak mozorrotuta hurbildu ziren Eliza Zaharrera.

## Beldurrezko ipuinak, Aginagako Eliza Zaharrean

Gau Beltza gero eta toki gehiagotan ospatzen da. Gure artera ere iristen hasi da. Aginagan, Antxomolantxa elkarteak Ixabel

Agirresarobe gonbidatu zuen Eliza Zaharrera. Beldurrezko ipuina kontatu zuen bertaratu zirenen artean.



Azaroaren 17an Oartzunen jokatu den finalurrekoan izango da Asier Azpiroz.

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa azken txanpan murgildu da

Aurreko asteburuan argitu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurrekoetara sailkatu direnen zerrenda.

42 bertsolari lehiatu ziren Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetan. Haietatik 24 sailkatu ziren final laurdenetarako; zazpi zuzenean, final-zortzirenetako saioetako garaileak. Gainerako hamazazpiak puntuen baitan. Finalurrekoetara, 18 bertsolari sailkatu dira. Haie-tatik bost, zuzenean sailkatu-takoak; gainerakoak, puntuazioz.

Asier Azpiroz Iztuetak zubiarrak puntuazioari esker egin du aurrera. Gogoan izan, Azkoitian jokatu den final-laurdeneko saioan puntuazio gehien bildutako Maider Arregi Markuletarekin berdinduta amaitu zuen Azpirozek.

### Sailkatutakoak

#### Zuzenean sailkatutakoak:

Alaia Martin Etxebeste, Beñat Gaztelumendi Arandia, Unai Mendizabal Jauregi, Oihana Iguaran Barandiaran, Nerea Elustondo Plazaola.

#### Puntuazioz sailkatutakoak:

Agin Laburu Rezola, Maider Arregi Markuleta, Asier Azpiroz Iztueta, Amaia Iturriotz Etxaniz, Andoni Rekondo Izagirre, Ane Labaka Mayoz, Ene-ritz Artetxe Eizagirre, Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi", Eli Pagola Apezetxea, Eneko Araiztegi Agirre, Eñaut Martikorena Lizaso, Oier Etxeberria Zubimendi, Aner Peritz Manterola "Euzkitze".

### Finalurrekoak

- Azaroak 17, 17:00 Oartzunen. Parte hartzaileak: Ane Labaka Mayoz, Asier Azpiroz Iztueta, Beñat Gaztelumendi Arandia, Eli Pagola Apezetxea, Nerea Elustondo Plazaola eta Oier Etxeberria Zubimendi.
- Azaroak 24, 17:00 Zarautzen.
- Abenduak 1, 17:00 Arrasaten.

### Finala, Ilunben

- Abenduak 14, 17:00 Donostiako Ilunbe zezen plazan.

### Sarrerak

Finalurrekoetarako eta finalerako sarrerak bertsosarrerak. eus atarian eskuratu daitezke.

## “Golazen” telesailaren aurrestreinaldia, azaroaren 15ean Sutegin

Euskal Telebista estreinatzean da telesail arrakastatsuen hamaikagarren denboraldia. Azaroaren 22tik aurrera ikusi ahalko dira atal berriak ETB1 katean. Lehenago, ordea, atalaren aurrestreinaldiaz gozatzeko aukera izango da azaroaren 15ean Makusi plataforman baita gune gehiagotan ere; tartean, Sutegin.

Usurbilgo Udaletik aditzera eman dutenez, bitan proiektatu dute lehen atal hori azaroaren 15ean, 18:00etan eta 19:30ean.

### Gonbidapenak eskuragarri

Usurbilgo Udalaren, UEMAren eta EITBren eskutik programaturiko emanaldietarako gonbidapenak hilaren 8tik aurrera eskuratu ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman.



Bi proiektio egingo dira. 18:00etan lehen, 19:30ean bigarrena.

## Usurbil.eus itxuraz eta mamiz berritua

Usurbilgo Udalaren webgunea itxuraz berritu eta zenbait hobekuntza txertatu dituzte bertan: “webgunearen azala antolatze modua eta goiko barra edo menua”, Udaletik berri eman dutenez.

Informazioa errazago aurkitzeko berritu dute usurbil.eus web orrialdeko menua

eta bertan dauden fitxetan, “topa daitekeen informazioa lehen baino xeheago erakusten da orain”.

### Plenoko bilkurak, ikusgai

Udalaren digitalizazioan sakontzen segitzeko, bestalde, aurtengo udalbatzaren osoko bilkuren grabazioak zintzilikatu dituzte webgune horretan.

katu dituzte webgune horretan.

Gogoan izan, udaleko bilkurak modu elektronikoan egiteko arautegia onartu zutela 2023ko maiatzeko osoko bilkuran. Denbora da Udala saio hauek bidez grabatzen hasi zenetik, baina traba tekniko batzuk tarteko, ezin izan dituzte webgunean zintzilikatu. Aurrerantzean ikusgai izango dituzue, beraz.

### Laster berrikuntza gehiago

Webgunea hobetzeko lanak ez dira bukatu. Udaletik zehaztu dutenez, “udalak identifikatuta ditu informazioa eguneratzeko beharra duten zenbait orrialde, eta datozen asteetan horiek bideratzen jarraituko du”. Besteak beste, “hobarien orrialde propio bat sortzekotan da”. Horrez gain, itxuraz berritzen jarraitu asmo dute baita.



Sari gisa, txapela eta Aterpea dendari elkartearen bonua eskuratu zituen.

## Irati Larrañaga nagusitu zen Lasarte-Oria Bai herri-krosean

27. Lasarte-Oria Bai! herri kro-sak irismen handia du herritarren artean. Askok dira egun horretarako propio prestatzen diren lasartearrak. Lasterketaren ondoren, ospakizun giroa nagusitzen da herrian, egun osoz luzatzen dena. Aurten 800 korrikalarik eman dute izena. Nagusien kategorian, Aitor Etxeberria eta Irati Larrañaga lasterkariak nagusitu ziren. Ipar

martxan berriz, Josep Donaie-re eta Cristina Borrás helmugaratu ziren lehenak.

### 10 kilometroko lasterketa

Irati Larrañagak 39 minutu eta 37segundo behar izan zituen 10 kilometroko ibilbidea osatzeko. Amagoia Fernandez de Lezea (41'14") izan zen bigarren eta Laida Oiz (42'02") hirugarren.



Maddi Olaetxea, Aiako proba amaitu berritan.

## Maddi Olaetxea, Euskal Herriko Mendi duatloiko txapeldun

2024ko Euskal Herriko Mendi Duatloian, Maddi Olaetxea usurbildarra nagusitu da. Mutilen sailkapenean, Unai Mateos (Ugao-Miraballes) izan da garailea. Aiako Andatza auzoan jokaturako proba eta gero gailendu dira bi kirolariak.

Kirolzale.eus web orrialdeko kronikan irakurri dugunez, "euriak eta ibilbidean pilatu-

tako lokatzak asko zaildu zuten parte hartzaileen jarduna".

**20 minutuko alde bigarrenari** Maddi Olaetxeak hala ere, abantaila atera zien atzetik geratu ziren lasterkariei. "20 minutuko alde atera zion bigarren izan zen Nekane Pradera gasteiztarrari. Ainhoa Marquinez idiazabaldarra izan zen hirugarrena".

## Usurbildar ugari Lasarte-Oria Bai! lasterketan

Lasarte-Oria Bai! Lasterketa Zubietatik igaro zen. 10 kilometroko ibilbidean herritar dezente hartu zuten parte. Herritarren artean lehena Iñaki Añorga Unanue izan zen 12. postuan, 34:49ko denborarekin. Hona hemen herritarrek egindako denborak:

- Iñaki Añorga (34:49).
- Beñat Lorenzo (37:08).
- Igor Maiz (38:11).
- Unai Udabe Maiz (38:11).
- Andoni Labaca (38:26).
- Irati Larrañaga (39:37).
- Ander Orena (40:07).
- Nikola Iraola (42:06).
- Gari Iraola (42:27).
- Oihan Illarramendi (43:35) Zubieta.

- Ekain Salegi (44:51).
- Maddi Lorenzo (45:31).
- Elur Zaldúa Elortza (46:47).
- Ekain Ramos Martin (46:47).
- Ion Orbegoza (47:40).
- Julen Odriozola (48:08).
- Gorka Etxeberria (49:15).
- Julen Lazkano (49:23).
- Abbat Mayoz (51:15) Aginaga.
- Adolfo Exposito (52:17) Zubieta.
- Maialen Esoain (52:42).
- Aroa Arruti (52:42).
- Erramun Erro (52:42).
- Eneko Martin (53:32).
- J. L. Bengoetxea (53:50).
- Lirain Rodriguez (54:43) Zubieta.
- Mikel Alcaide (54:43) Zubieta.



Lasarte-Oria Bai! lasterketak Zubieta igaro zuen.

- Oihane Labayen (55:07).
- Iñaki Zugasti (56:58).
- Jonathan Garmendia (57:08).
- Larraitz Gil Iceta (57:13).
- Nadia Torrea (57:26).
- Javier Martinez (58:55).

- Xabier Erauntzetamurgil (59:57). Zubieta.
- Beñat Erauntzetamurgil (59:58). Zubieta.
- Xabier Arruti (1:00:42).
- Lurdes Salaberria (01:01:21).

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebaten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

## MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirtan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Irargari berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gabilta: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. 647742588

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

## BESTELAKOAK

Larunbatean giltza batzuk aurkitu nituen Troia beheko karretera eta trenbide artean. Udaltzainetan utzi ditut.

Hemengo aurtengo intxurrak salgai. Telefono zenbakia: 943 671 160.

Ikeako sehaska salgai, koltxoirik ez dauka (50 euro). Koltxo eta ohe-jantziekin osatutako sehaska txikia (20 euro). Hamaka bere kaxa eta guzti (50 euro). Uppababy ahulkia salgai (100 euro). 652 765 583.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 08	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 09	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 10	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 11	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Astearte, 12	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 13	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 14	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 15	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 16	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Igandea, 17	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## Eskubaloia Oiardon

## Azaroak 9, larunbata

- 09:45 Infantil neskak:
  - Usurbil KE-Lana Aloña Mendi B
- 11:15 Jubenil mutilak:
  - Usurbil KE-Bera Bera
- 16:00 Kadete mutilak:
  - Usurbil KE A-Urkunde Elgoibar
- 17:45 Senior neskak:
  - Urbil-Usurbil KE
  - La Salle Legazpi
- 19:30 Senior mutilak:
  - Saizar Usurbil K.E.
  - Txiki polit Zarautz

## Azaroak 10, igandea

- 11:00 Jubenil neskak:
  - Usurbil KE
  - Astigarragako Mundarro

## Boleibola Oiardon

## Azaroak 9, larunbata

- 13:00 Kadeteak: Usurbil-Hernani

## HILDAKOAK



**Jose Zuriarrain**  
Irazustabarrena

Azaroaren 2an hil zen, 82 urterekin.



**Ignacia Altuna**  
Unanue

Urriaren 30ean hil zen, 94 urterekin.



**Kontxi Zubiria**  
Eguzkiza

Azaroaren 1ean hil zen, 87 urterekin.



**Arantxa Goenaga**  
Martikorena

Urriaren 30ean hil zen, 77 urterekin.

## Pilota partidak

## Azaroak 8, ostirala

- 17:45 Errendimentuko partiduak:

## Infantil 3. Mailan:

- Pagazpe (Martin)
- Gazteleku

- Pagazpe (Ugarte)

- Hondarribia

## Infantil 1. Mailan:

- Pagazpe (M.Alejo)
- Lapke

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTEGUNA 07

**KALEZAR Emakumeon Etxea: hitzaldia**

"Zaintzaren pedagogia", Nora Salbotx hizlariaren eskutik.  
18:00 *Pelαιοenean.*

**ZUBIETA 2025eko udal aurrekontuen aurkezpena**

Nafartarrak taldearen eskutik.  
18:00 *Kaxkapen.*

## LARUNBATA 09

**USURBIL Txalaparta festa**

*Egun osoko jarduera.*

**USURBIL Zuberoako ikastolen aldeko kantaldia**

Oilarrak talde zuberotarrarekin.  
12:00 *Kalejira, Mikel Laboa plazatik abiatuta.*  
18:30 *Kantaldia Sutegin.*

**TXOKOALDE Asier Kidam magoaren ikuskizuna**

17:30 *Txokoargin.*

## IGANDEA 10

**USURBIL "Izurde Mutikoa" filma Sutegin**

Euskarazko film proiektzioa haurrentzat. Sarrera: 3,20 eurotan eskuratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzaileak: Udala, Ziortza.  
17:00 *Sutegin.*



'Kanpaiak jotzea' ekitaldiarekin hasiko da eguna.

## Txapalarta Festa larunbat honetan ospatuko da

- 10:00 Kanpaiak jotzea (Artzetarrek egiten zuten erara).
- 12:00 Txokoaldeko Txalaparta Txokoan, Oreka Tx eta mokadutxoa.
- 14:00 Ibilaldia Erriberatik Albokariekin.
- 15:00 Bazkaria Aginaga sagardotegian. Txartelak salgai azaroaren 5era arte: helduenak 39 eurotan salgai usurbilkultura.eus plataforman. Haurrentzako txartelak (25 euro) usurbiltxalaparta@gmail.com posta helbidean eskatu behar dira.
- 17:00 'Madrilen Txalaparta' taldearen emanaldia Aginaga sagardotegian bertan.
- 20:30 Fanfarrikant eta txalaparta kalejira herrigunean. Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte, 650 Usurbil Bizi.

## Asier Kidam magoa Txokoalden

Asier Kidam magoa Txokoargin arituko da larunbat honetan. Emanaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta sarrera doan izango da. "Ikuskizunak irauten dituen 60 minutuetan zehar zeure arazoak desagertu eta haien lekuan sekulako irribarrea agertuko da", Asier Kidamek berak esan izan duenez.

## Sagar eta Sagardo Kultura

**Azaroak 14, osteguna**

• 18:00-19:30 "Sagastien bioaniztasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanzekin Potoxoenan.

**Azaroak 28, osteguna**

• 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

**Izen-ematea:**

sagardoa@ni.eus  
630 938 027.

## Sutegi udal liburutegian

**Azaroak 13, asteazkena**

• 18:00 Ipuin-kontakteta Miriam Mendozarekin, HH3-HH5eko haurrentzako.

**Azaroak 19, asteartea**

• 18:30 Irakurketa so-lasaldia Yolanda Arrietarekin (LH6-DBH1).

**Azaroak 27, asteazkena**

• 18:00 Irakurketa so-lasaldia Yolanda Arrietarekin (LH3-LH5).

 943 361182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

  
**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

José María Larburu  
Garraiatzailea



# LARBURU

Garraioak

gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA ☎ 943 36 17 35 • 651 703 237

urriak 24 - azaroak 14

  
agerraldia  
euskeraren plazara

  
ikastolenekartea

  
aek

  
Sortzen

  
errigora



errigora.eus



Eman bultzada,  
indartu euskara

## Agerreko uzta euskarari puzka

# EROSI, AURREZTU ETA FRESKOTASUNA ERAMAN ETXERA!

**30€**  
-tik  
GORAKO  
EROSKETEKIN,  
POLTSA BAT  
OPARI

FRESKOTASUNAREN  
**IRAULTZA**  
HEMEN HASTEN DA / III



Elaboración responsable

hurbilago

Gure dendetan 30 eurotik gorako erosketa eginez gero, eraman poltsa isotermiko bat opari! Mantendu zure produktuak beti fresko eta gozatu bertako kalitateaz. Eskaintza honek lehen 50 erosleentzat balio du eta azaroaren 7tik aurrera hasiko da.

**EROSLE TXIKIEN  
IRAULTZA!** / III

**BAT HASI, BESTEAK SEGI,  
GUZTIOK BULTZA!  
BERTAKOA GAL EZ DADIN  
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!**